

■ erantzugu... ■



943 300 228



@ zuzendariari@jalgi.com

Derrigorrezko soldadutza desagertzean non kokatu beharko da borroka antimilitarista?

■ **Lehenik eta behin** esan borroka antimilitarista intsumisioa baino gehiago izan dela betidanik. Egia da batik bat intsumisioan zentratu dela batik bat urteetan. Baina hori baino gehiago izan da beti, eta hala izaten jarraitzen du orain ere. Gainera, inoiz baino serioago aztertu behar da borroka

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizena eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

antimilitarista bere osotasunean, arrisku bat ikusten dut eta. Hau da, derrigorrezko soldadutza kentzen badute, jendea erlaxatu egingo da, ez da egongo lehen intsumisioaren inguruan egon zen dinamika.

Eta hori arriskutsua izan daiteke antimilitarismoarentzat. Kontuan hartu behar dugu borrokarako aitzakia eta arrazoi ugari ditugula, eta hala izango ditugula derrigorrezko soldadutza kentzen badute

ere. Hori argi eta garbi izan behar dugu. **Itziar Arteta** (Bilbo)

■ **Bada, orain arte** joan den bidetik joan behar du orduan ere, alegia, gizartearen desmilitarizazioaren bidetik. Horrek esan nahi duen guztiarekin. Adibide garbi bat Bardeetan dugu. Egitako ugari dago hor. **Iban Bereziartua** (Donostia)



galdeiozu...

Maite Aristegi

EHNEKO IDAZKARI NAGUSIA

Agenda 2000-k ekarriko al dio inolako onurarik baserriari?Aitor Gonzalez [Donostia]

■ **GAUR EGUN PROPOSATZEN** den bezala onartzen bada, hau da, prezioen beherakada eta laguntzen urritze eta bana-keta eskandaluzkoaz, kaltea besterik ez dio ekarriko. Eta, zoritxarrez, oraingo negoziaketako partxeek ez dute ezertarako balioko Euskal Herriko eta Europako nekazaritza bizi bat ziurtatzeko. Agenda 2000 hau goitik behera aldatu beharko litzateke.

Martxoaren 16tik aurrera

Jose Angel Cuerda • GASTEIZKO ALKATEA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari

**Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain**

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

**'Bazka' leku =
bakeleku**

Bazka: Janaria, bereziki anima-
liena.

Bereziki *animalia politiko*
batzuen (ene aburuz).

Iritsi zait zure gutuna Alkate
jauna eta ez nizuke dohaineko
propaganda egin nahi, baina zer
egingo diogu, nahiago dut barru-
ko harra askatu.

Xehetasun txiki bat: zuk bida-
litako proposamenean atxiki-
naren aldeko aukera bakarra
ematen duzu. Kontsulta bat egi-
ten zaionean jendeari aukera ire-
kia eman behar zaio: bai, ez edo
paso. Beraz, zure proposamen-
aren akats nabari hori zuzentzeko
asmoz zera adierazten dizut:

«*Expreso mi NO ADHESION a la
propuesta 'Un espacio para la
paz' promovida por el Alcalde de
San Sebastián. Eta bakezaletzat
daukat neure burua, Odon.*

Bakearen alde azken boladan
ematen ari diren urrats garran-
tzitsuetan, ez zuk eta zuk orde-
katzen duzun PSOE alderdiak ez
duzue inolako bultzadarik eman
prozesu baikor hori gauza dadin;
alderantziz! oztopatzen ari zarete
behin eta berriro, lehenbailehen
aurreko egoera gatazkatsura
itzul gaitezen, bestela zein bake
motaren izenean ari da haizatzen
maxinada zure sozioa den
Buesa jauna?. Zeren bultzatzaile
bilakatu nahi duzu zure burua,
ekintza «apartidista» hau, orain
udal hauteskundeen atarian ate-
reaz? Donostiak badu *Bakearen*
usoa delakoa, gatazkaren ikurra,
bilakatu zena lazo urdinaren
garaletan eta baditu ere bere
oroimenean zure agerraldiak
Boulevard-ean *solo ante el peli-*

gro jarrera erasorkor eta antzue-
tan. Nori sartu nahi diozu ziria?
Zezenplazara etorriko diren
turistei?

«*La dramática experiencia
donostiarra*» diozunean, ez dakit
zergatik baina iruditzen zait
drama batzuetaz bakarrik min-
tzo zarela, gainera Donostia Eus-
kal Herriko sufrimendu guztien
ispilu bihurtu nahi duzu halako
parke bat sortuz, bertara ez
dakit zeren izenean edozein
parke tematiko *pesetero*-etara lez
jendea erakarriz... edo agian
borrokalari sartu eta bakezale
ateratzeko gai izango den izpiri-
tuaz hornituko duzu delako
«espazio» hori zuhaitzen itzalpe-
an —hauek bai ez direla partidis-
tak, edonori eskeintzen baitiote
bere itzala— bake baten izenean

programatutako ekintza eta
hitzaldi baketsuak eskeiniz.

Ez duzu lortuko Bilbaok bezala
James Bond erakartzea eta pro-
duktorak eta 007-ren miresleak
eta Espainiako eta EAEko mass
mediak beraren atzetik, zeren
gainera kontraesankorra litzate-
ke lau haizetara barreiatu gura
duzun bakezaletasunarekin.
Beraz, mirakuluren baten zai
gelditu behar, fededunak erakar-
tzeko.

Víctimas del terrorismo oroitze-
ko ere sortu nahi duzun espazio
horretan, nor sartzen duzu?
Gladys del Estal ere «víctima del
terrorismo»tzat jotzen duzu?,
zeren zure parkea, *parque de
Maria Cristina* deitzen baita eta
nerea Gladys Enea parkea.

Parke berbera, espazio berbe-
ra, bake berbera dira zurea eta
nerea? Pakea *apartidista* dela
uste duzu, Odon jauna? **Edu
Zabala** • DONOSTIA

• MONTXO •

